

**2014.03.10**  
**LURRALDE ANTOLAMENDUKO 8. bilerako AKTA**

Parte hartzaileak: KF, AG, XI,  
A, AB eta OA

Bileraren gai ordena:

- 1.- Frontoiko plaza eta bidegorria
- 2.- Lapurreta
- 3.- Toki Goxo
- 4.- Bizikleta elektrikoak
- 5.- Beko Kaleko urbanizazioa eta Plan Partziala
- 6.- Sare inalanbrikoa
- 7.- Haurtzaindegiko toldoa
- 8.- Frontoiko sarea
- 9.- Larregiko terrenoa

### **1. FRONTOIKO PLAZA ETA BIDEGORRIA**

Aurreko bilera geratu ginen bezala, hilabete honetan errepidea gurutzatzeko ohitura zein den aztertu da eta zebra bide berria egiteko ondorengo erabakia hartu da: Gaur egun dagoen zebra bidea oinezkoentzat mantenduko da eta bidegorriarena plaza bukaeran egingo da, hartara, bidegorriak plaza mugatuko du eta osotasun bat emango dio.

Herri osoan *30 gunea* jartzeko proposatu da.

### **2. LAPURRETA**

Martxoaren 8 edo 9an, udaletxean lapurreta egin dute. Hori dela eta, neurriak hartu behar diren hitz egin da: ate edo zerraila sendagoak jarri, kamarak ezarri, alarma ipini...Aurrekontuak eskatu eta hotzean hartzeko erabakia dela erabaki da.

Bide batez, informazioaren segurtasun kopia nola egiten den galdetu da eta ze modu den onena jakitea komeni da.

### **3. TOKI GOXO**

Toki Goxon dirulaguntza bidez egingo diren lanak aurkeztu dira. Oro har ez dago arazorik, proiektu erraza da, baina Artza txabolaren parean errepide estuena dagoen lekuan zalantza sortu dira. Berriz aztertzekotan geratu gara.

### **4. BIZIKLETA ELEKTRIKOAK**

EVEk banatzen dituen diru-laguntzak apirila edo maiatza hasieran aterako omen dira. Honen inguruan bizikleta bultzatzeko, udalak diru-laguntza emateko erabakia hartu du. Ze irizpide erabiliko diren aztertu ondoren, helburu nagusia bizikleta bultzatzea denez, baldintzarik ez jartzea erabaki da. 250 € kantitatea bideratuko da, erosle bakoitzarentzako 50 €-ko laguntza. Hurrengo hiruhilabeteko aldizkarian honen berri emango da.

## **5. BEKO KALEKO URBANIZAZIOA ETA PP**

Foru Aldundikoekin izandako bileraren berri eman da. Bertan, Beko Kaleko urbanizazio proiektua egiteko jarraian dagoen gunen industrialaren Plan Partziala garatu behar dela aipatu ziguten. Orubearen jabetza oraindik ez dago udalaren menpe eta plan hau aurrera eramateko beharrezkoa ikusten da jabetza lortzea. Plan partziala albo batera utzi eta Foru Aldundikoei proposamen desberdinak eskatzea erabaki da.

## **6. SARE INALANBRIKOA**

Sare inalanbrikoak bi helburu ditu: lehenengoa da wifia zabaltzea, eta, bigarrena, pantailak eguneratzea. Bi fasetan egitea proposatu zen eta dagoeneko lehenengoa eginda dago. Orain bigarrenarekin hasiko da: jubilatua-mediku etxea-lurdes denda.

Gaueko 00:00 tatik goizeko 8:00 etara itzali daitekeen galdetu da.

## **7. HAURRESKOLAKO TOLDOA**

Haurreskolakoek kanpoko eremuan toldoa jartzeko eskaera egin dute. Lehenago ere estalki moduko bat jartzeko eskaera egin zuten, baina ezin zela erantzun zitzaien. Lurraren kontrako irabazitako lur ospela dela gogorarazi da eta ez dela inoiz gunen egokia bihurtu gogorarazi nahi da. Iparraldera toldoa jartzeak zentzurik ez du, iparraldean eguzkiak ez duelako inoiz jotzen.

## **8. FRONTOIKO SAREA**

Auzolanean frontoiko itxituren jarri nahi den sarea bi zatitan egitea erabaki da: 2 m-ko zatia bat eta 1 m-ko beste bat. Panel doble hilokoa izango litzake baina kolore txurian dagoen galdetu behar da.

## **9. LARREGIKO TERRENOA**

Larregiko terrenoaren planoak erakutsi dira eta bertako mehategiko txostenak azaldu dira. Honen inguruan erabakia hartu beharra dago.